



5. ARIKETA: IGOGAILU SAILKATZAILEA

Elementuak:

- **Igogailu bat.** Igogailuak gora ($M+$) edo behera ($M-$) mugitzeko motore bat dauka. Igogailuak 30 Kg-ko pisu maximoa onartzen du. Solairu bakoitzean sensore batek adierazten du igogailua bertan dagoen edo ez ($spi1$, $spi2$, $spi3$)
- **Garraio-zinta bat** (3 solairuan). Zinta aktibatu eta desaktibatu egin behar da behar denean.
- Igogailura heldu baino lehenago piezen pisaketa egingo duen **baskula bat**. Baskulak bi sentore ditu: bata pieza detektatzen duena (det_pieza) eta bestea bere pisua 10 kg baino handiagoa dela adierazten duena ($sup10$). Baskulak pisaketaren seinalea ($sup10$) detektatu duenetik 2 segundura emango du. Pisaketa egiten den bitartean zinta gelditu egon behar da.

Prozesuaren deskribapena:

Prozesua m pultsagailua sakatzerakoan hasiko da. Hasieran igogailua 3. solairuan egongo da.

Piezen etorrera 3. solairuko zintaren bitartez egiten da. Piezen irteera lehenengo eta bigarren solairuen artean egingo da, bere pisuaren arabera (10 kg-tako pieza 1. solairua eta 20 kg-tako pieza 2. solairua). Piezak igogailura sartu diren ordenean irten behar dira dagokien solairura.

Prozesua 50 pieza dagokien solairuetan jarri direnean eta igogailua 3. solairuan dagoenean amaituko da. PROZESUA OPTIMIZATU BEHAR DA

Oharra: Ez eduki kontutan piezak nola kanporatzen diren solairuetara (suposatzen da makina batek kanporatzen dituela), bakarrik pieza konporatu dela adierazi.

